

ESANAK

DANIEL ARAP MOI

(Kenya presidentea)

«1998ko atentatueta, nazioarteak ez gintuen anitz lagundu; gure aldetik, egin ahalak oro egingo ditugu eraso hauei ihardukitzeko»

BINYAMIN NETANYAHU

(Israelgo Atzerri ministroa)

«Argi dago honen guztiaren atzean nazioarteko terrorismoa dagoela»

O. BAKRI MOHUMMAD

(Londresko buruzagi islamista)

«Al Kaedaren aldekoek jakinarazi zuten Afrikan israeldarrek odol sari handia ordainduko zutela»

Monbasako Poliziako bozera-maileak. Paradise Beach hotelan eztanda egin zuen ibilgailua ere berdintsua zela eta horretan zihoazen eraso egileak ere «arabiarrek» zirela aditzerat eman zuen Kenya Poliziak.

Hegazkineko pilotua eta zenbait bidaiari ohartu ziren zerbait ezohikoa gertatu zela, baina misile airekoa ukitu ez zuten, Tel Aviveko Ben Gurion aireportura iritsi zen atzo arratsalde hasieran. Israelgo Gobernuak Mossad zerbitzu sekretuen gain jarri zuen bi atentatuok ikertzeko lana. Israelgo agintarien artean, Binyamin Netanyahu Atzerri ministroak soilik zuen iritzia eman, eta «nazioarteko terrorismoaren» bizkar jarri zituen atentatuak. Daniel Arap Moi Kenya presidentea esan zuenez, aldiz, «1998. urtean antzeko eraso bat pairatu genuen, baina nazioarteak, gure adiskide direnak barne, ez gintuen anitz lagundu. Gauzak horrela, gure aldetik, egin ahalak oro egingo ditugu eraso hauei ihardukitzeko».

Albisteak nahiko harrigarri eta sinesgaitza badirudi ere, atzoko erasoak Interneteko solasgune batzuetan joan den astean nola edo hala iragarri zirela eman zuen aditzerat atzo Omar Bakri Mohummadek, zeina Londresen bizi baita eta Muhadjirun erakunde islamikoren buruzagia baita. Al Kaeda erakundearen sustatzaile gisa argiki azaltzen den buruzagi islamista horrek atzo zehaztu zuenez, «Al Kaeda inguruko ekintzaile batzuek jakinarazi zuten zerbait gertatuko zela Afrikan, eta israeldarrek odol sari handia ordainduko zutela nabarmendu zuten».



RONI SCHUTZER / EPA

Israelgo Armadako erizainak Beit Shean hiriko erasoan zauritutako bat Haifako ospitalera eramaten.

Gutxienez sei israeldar hil dira Likuden bulego batean, palestinarrek tirokatuta

Erasoa jo duten bi ekintzaileak eta Nabulusen zartarazitako gas lantegi bateko hiru kide hil ditu Tsahal segurtasun indarrak

soldaduek gutxienez 10 palestinar atzeman zituzten. Horietako bi Tanzimeko ustezko kideak ziren.

Erredakzioa | DONOSTIA

Atzo bi ekintzaile palestinarrek gutxienez sei israeldar hil eta 30 bat zauritu zituzten, Israel iparraldeko Beit Shean hirian eginiko erasoan. Tel Aviveko segurtasun indarrek bi erasotzaileak hil zituzten. Erasoa Likud alderdiaren bulego batean gertatu zen, alderdiaren buruzagia hautatzeko egunean. Bestalde, Nabulusko gas biltegi baten leherketaren ondorioz, hiru palestinar hil eta gutxienez bost zauritu ziren.

Likud alderdi eskuindarreko kideak alderdiko buruzagia hautatzeko bozkatzen ari zirela, bi palestinar armatu tiroka eta granadak jaurtiz sartu ziren alderdiko bulegoan, Beit Shean hirian, eta ondoko auto-

bus geltokian tiroka jarraitu zuten, hiriko alkate Pini Kabalok jakinarazi zuenez. Erasoren ondorioz, gutxienez sei israeldar hil eta 30 bat zauritu ziren —hiru bat ume tartean—, horietako 11 larri. Soldaduek bi palestinarrek hil zituzten. Iduriz, horietako batek lehergailuz beteriko gerriko bat zerraman.

Al Aksako Martirien Brigadek beren gain hartu zuten erasoaren erantzukizuna.

Atzo Nabulus hiriko gas biltegi batean izandako leherketaren ondorioz, hiru palestinar hil eta beste bost gutxienez zauritu ziren. Azaroaren erdialdetik hiria erabat okupatua du Israelgo Armadak, eta zailtzan dago eztanda ikertuko dutenetz.

Atzo Gazako eskualdean soldaduek tankeen obusez eta metrailadorez Beit Lahiako eta Deir El Balako eremuak tirokatu zituzten, baina ez zen biktimarik izan. Iturri militarren arabera, palestinarrek ere erasorik egin zuten, hain justu Gush Katif kokagune blokearen kontra, Gazako hegoaldean. Gainera, ekintzaile palestinarrek kokagune batetik bestera zihoan ibilgailu bati tiro egin zioten, baina ez zuten biktimarik eragin.

Janinen soldaduek bonba auto baten berri izan zuten, eta era kontrolatu batean hura leherrarazi zuten. Orobat, bi metal lantegi suntsitu zituzten, ustez bonbak eraikitzeke erabiltzen zirelako. Zisjordaniako hainbat hiritan, bestalde,

Tunisia, palestinarren alde

Tunisiako Gobernuak herri palestinarren aldeko nazioarteko esku-hartzea eskatu zuen atzo, eta Ekialde Hurbileko gatazkan «bake logika bat» ezarri beharra berretsi. Gaur izango den Palestinako Populazioa Sostengatzeko Nazioarteko Egunaren bezperan egin zituen adierazpenok.

Tunisiak adierazi zuenez, «Israelek palestinarren kontra daraman politika zapaltzailea bukatzea ezinbestekoa da». «Nazioarteko komunitateak ohartu behar du Israelen eguneroko erasoaren ondorioz herri palestinarren egoera humanitarioa okerrera doala. Tel Aviv behartu behar da politika hori gelditzera eta nazioarteko legedia errespetatzera».

Sharonek esan du «terroreak Israelgo bozetan eragin» nahi duela

Agentziak | JERUSALEM

Likud eskuineko alderdiak barne bozak egin zituen atzo, urtarilaren 28ko hauteskunde orokorretan alderdia nork ordezkatzuko duen jakiteko. Israelgo lehen ministro Ariel Sharon faborito ageri zen in-

kesten arabera, Atzerri ministro —eta lehen ministro ohi— Binyamin Netanyahu baino 20-22 puntu gehiagorekin. Lerrook idazterako, ez zen bozen emaitzarik jakinarazi.

Beit Sheango erasoaren ondotik Sharonek zera esan zuen: «Terroreak Israelgo bozetan eragin nahi du». Sharon beldur zen erasoak ikusirik hautesleak etxean geratzeko ziren, eta bozkatzeke eskatu zien.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria